BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSA-OHARRA**

**Batzar Nagusietako Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordea**

# 2005-2016 epealdirako Bizkaiko Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralaren bigarren ohiko azterketeak Batzar Nagusien aldezkotza jaso dau

Bilbon, 2012ko abenduaren 10ean

2005-2016 epealdirako Bizkaiko Hondakinen Kudeaketarako II. Plan Integralaren bigarren ohiko azterketeak, egin-eginean Aldundiak 2005-2016 epealdirako zaborren arloan egingo dituanak jasoten dituan dokumentuak, Batzar Nagusien aldezkotza jaso dau. Bizkaiko Batzar Nagusien Nekazaritza eta Ingurumeneko Batzordean jaso dau ditu Euzko Abertzaleak Taldearen (EAJ), Socialistas Vascos Taldearen (PSE) eta Bizkaiko Talde Popularraren (PP) aldeko botoak. Erabagitakoaren arabera, Aldundiaren Jaurtze-Batzarrari aurkeztuko jako dokumentu hori "Hondakinen Herrialde Batzordeak 2012ko urriaren 1eko bileran onartu zuen agirian ezartzen ziren termino beretan" onartu dagian. Aldeko botoa emon daben hiru Taldeetako ordezkariek azpimarratu dabe azken dokumentu hori etorri dala azterketa horretan parte hartu daben erakundeen —Aldundia, Udalak eta Batzar Nagusiak— arteko "baterako lanaren" eta "adostasunaren" eskutik.

Batzarkide-Taldeen iradokizunak eta ekarpenak jasoten dituan dokumentu hori izango da Aldundiak hurrengo hamarkadan uri hondakinen arloan izango dauen jarduereareren ildoak markatuko dituana. Maria Presa batzarkide jeltzaleak esan dauenaren arabera, horrek bideratu egingo dau Bizkaiko hondakinen arazoari "erabateko konponbidea" emotea. PPren ordezkariarentzat, Arturo Aldecoa jaunarentzat, Bizkaian jadetsi dan akordioa "adostasun adibidea" da, "beste arlo batzuetan" adostasunak lortu ahal izateko balio leikena. Joaquín Colmenero batzarkide sozialisteak adierazo dau akordioak erakutsi egiten dauela "kudeaketa eraginkorra" izan dala eta aurrerantzean be baliabide "bizia" eta sasoietara ondo egokitua izan behar dauela.

Bildu izan da Talde bakarra plan hori abiarazotea tamalgarritzat joten. Talde abertzale horren aburuz, dokumentu hori sortu da udal eta amankomunitate guztiek ordezkaritzarik ez daben erakunde batetik, Hondakinen Lurralde Kontseilutik. Madariaga Diputatu jaunak ukatu egin dau hori holan dala eta ganeratu dau erakunde horretan parekotasunezko ordezkaritza dabela Aldundiak eta Udalek, EUDELen bitartez. Bildu Taldearentzat, planak ez ditu helburu "zehatz eta argiak". Asier Vega Bilduko batzarkideak uste dau dokumentua "anbiguoa" dala eta "anbizinorik" bakoa;

Vega batzarkideak barriro salatu dau Zabalgarbi egotea “anbizino handiagoko plangintzak egiteko oztopoa” dalako.

Enparauko Taldeek adierazo dabe Uriko Hondakinen Planaren bigarren azterketa horrek Bizkaiaren “errealidadea erakusten dauela” eta plana ez dala Zabalgarbi bakarrik. Ingurumeneko Diputatu jaunak berba egiteko txandea eskatu dau eta Bilduri zuzendu jako esanez bigarren azterraldiaren “arrakasta handia” erakutsi dala hain zuzen be Zabalgarbiren bigarren lerroa “beharrezkoa ez dalako”. Maria Presa EAJko batzarkideak hauxe ganeratu dau: “ezin geinke ondo dabilela jakin dakigun zerbaiten ordez zer dan be ez dakigun zerbait jarri”.

ZEBRA MUSKUILUA AGERTU IZANA

Beste gai horretan ahobatasuna agertu dabe Talde guztiek adierazoterakoan arduratuta dagozala Bizkaiko uretan zebra muskuiluak izandako hedapenagaitik. Bizkaiko Talde Popularrak halan eskatuta, Iosu Madariaga Ingurumeneko Foru Diputatu jauna batzorderatu egin da eta berretsi egin dau muskuilu hori egon dagoala Undurraga, Urrunaga eta Mendikosoloko urtegietan. Diputau jaunak esan dau “ez dagoala hain indartsua dan espezie exotiko horren hedapena gelditzerik ... Europako beste leku askotan jazo dan lez” eta komunikabideei eskatu deutse “beharrezkoa ez dan alarmismorik ez sortzeko, espezie hori personentzat kaltegarria ez dalako.

Diputatu jaunak adierazo dau euskal administrazinoek sei urte daroezala, 2006. urtetik hona, arazo horri aurre egiteko alkarlanean. Foru administrazinoa eta beste euskal erakunde batzuk partaide dira Zebra Muxilearen Jarraipenerako Batzordean, horren helburu dala era koordinatuan aritzea espezie inbaditzaile horren presentziaren aurkako burrukan, espezi hori hain da-ta kaltegarria hemengo ekosistemetarako eta hainbeste kalte eragiten ditu-eta hodietan eta uretako makinarietan.

Madariaga Diputau jaunak azpimarratu egin dau Bizkaian martxan jarri dirala jarraipen batzordean erabagitako neurriak, Uraren Euskal Agentziak suspertuta, bera da-ta Euskadiko erakundeen arteko jarraipenerako mahaiak koordinatzeko ardurea dauen erakundea. Erakunde arteko Jarraipen Batzordea urriaren 17an batzartu zan azkenengoz eta erabagi eban neurriak hartzea espezie hori barruko uretara hedatu ez daiten, esaterako urtegietan aisialdiko ekintzak kontrolatzea, arrantza egitea galazotea eta Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoak urotan dagozan azpiegiturak errebisatzea.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

**Comisión de Agricultura y Medio Ambiente de las Juntas Generales**

# La revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005-2016 recibe el impulso de las Juntas Generales

Bilbao, a 10 de diciembre de 2012

La segunda revisión del II Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Bizkaia que contempla las futuras actuaciones de la Diputación en materia de basuras entre el año 2005 y el 2016, ha recibido hoy el espaldarazo de las Juntas Generales de Bizkaia. Los grupos junteros Nacionalistas Vascos (PNV), Socialistas Vascos (PSE) y Popular Vizcaíno (PP), han apoyado con su voto en la Comisión de Agricultura y Medio Ambiente, el traslado de este documento a la Diputación para su aprobación, en un futuro Consejo de Gobierno, en los "mismos términos" de los que salió del Consejo Territorial de Residuos, en la reunión del pasado 1 de octubre. Los tres grupos junteros han destacado que el documento final es fruto del "trabajo conjunto" y el "consenso" entre las instituciones que han participado en la elaboración de esta revisión: la Diputación, los Ayuntamientos y las Juntas Generales.

Esta herramienta, que ha incorporado las sugerencias y aportaciones de los grupos junteros , es la base que debe guiar las actuaciones de la Diputación en materia de residuos sólidos urbanos durante más de una década. Según la apoderada nacionalista María Presa, es la que va a permitir dar una "solución integral" al tema de las basuras en Bizkaia. Para el representante del PP, Arturo Aldecoa, el acuerdo alcanzado en Bizkaia es un "ejemplo de consenso" que podría servir para lograr otros acuerdos en "otros temas". El representante socialista Joaquín Colmenero, por su parte, ha destacado que este acuerdo es la demostración de una "gestión eficaz" y debe continuar siendo una herramienta "viva" y revisable para adaptarse a los tiempos.

Bildu ha sido el único grupo que ha lamentado la futura puesta en marcha de este plan. Para la formación abertzale el documento nace en una entidad – el Consejo Territorial de Residuos- en la que no están representadas todas las mancomunidades y municipios de Bizkaia, algo que el diputado de Medio Ambiente, Iosu Madariaga ha negado luego al matizar que es un órgano paritario formado por la Diputación y los Ayuntamientos a través de EUDEL. Para Bildu, el plan carece de objetivos "claros y definidos". Su portavoz en la Comisión, Asier Vega, cree que el documento es "ambiguo" y sin ambición, y ha denunciado de nuevo la existencia de Zabalgarbi por ser "un obstáculo para hacer planificaciones más ambiciosas".

El resto de grupos ha respondido que esta segunda revisión del plan de Residuos Sólidos Urbanos "refleja la realidad" en Bizkaia y que el plan no es sólo Zabalgarbi. El diputado de Medio Ambiente ha pedido la palabra para matizar a Bildu que precisamente el "gran éxito" de esta revisión es que la segunda línea de Zabalgarbi se ha demostrado que "no es necesaria". "No podemos cambiar algo que sabemos que funciona por algo que no sabemos qué es", ha añadido María Presa del PNV, en referencia a la política de gestión de residuos que desarrolla la Diputación de Gipuzkoa.

## PRESENCIA DEL MEJILLÓN CEBRA

Por otra parte, en lo que sí ha habido unanimidad entre los grupos junteros es en mostrar la preocupación ante el avance del mejillón cebra en las aguas continentales de Bizkaia. A petición del Grupo Popular, el Diputado Medio Ambiente, Iosu Madariaga, ha comparecido para confirmar la presencia de este molusco en tres embalses vizcaínos: Undurraga, Urrunaga y Mendikosolo. El responsable foral ha afirmado que el avance de esta especie exótica "es imparable", como se ha demostrado en otras zonas de Europa, y ha pedido que no se genere alarmismo, al subrayar que la presencia de esta especie "es inocua para las personas".

El diputado ha detallado que las administraciones públicas llevan seis años trabajando conjuntamente contra esta problemática. La Diputación Foral, y otras administraciones vascas forman parte de una comisión de seguimiento del mejillón cebra creada en diciembre de 2006 para luchar de forma coordinada contra la presencia de esta especie invasora que se ha demostrado que resulta negativa para los ecosistemas autóctonos y que ocasiona daños en tuberías y maquinaria acuática

Madariaga ha destacado que en Bizkaia se han puesto en marcha las actuaciones acordadas en el seno de esta comisión de seguimiento, auspiciadas por la Agencia Vasca del Agua Ura, que es la entidad que coordina la mesa interinstitucional de seguimiento en el País Vasco. En la última reunión de este organismo celebrado el 17 de octubre, se adoptó la aplicación de medidas preventivas para evitar la expansión de esta especie a otras aguas internas, entre las que el diputado ha citado el control de las actividades de ocio en los embalses, la prohibición de la pesca o la revisión, por parte del Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, de las infraestructuras instaladas en estas aguas.